


BALEIKE

MAITANE OSA

**POLONIAN
EUSKARAZ**



ERAKUSKETA, Oxford aretoan:

Irene Iruretak eta Karmele Gorroñok osaturiko IRRIMARRA bikote sortzailea. **Otsailak 28 - martxoak 17.**

Egunero 18:00-20:00.

MARTXOAK 5: 18:00 BIZITZAK ERDIGUNERA hitzaldia. Ele bitan. Gonbidatuak: **Arantza Corrales**, ONEKA plataformako kidea (Euskal Herriko emakume pentsionisten plataforma), eta **Juana Aranguren**, PLAZANDREOK (Emakumeon plataforma politikoa).

MARTXOAK 7: 22:00 ZINE-FORUM, Aita Marin: "Viaje al cuarto de una madre", zuz.: Celia Rico Clavellino.

MARTXOAK 12: 18:30 Zumaiaiko "Emakumeon*Etxea" elkartearen aurkezpena. Kolaboratzailea: Esti Curiel. Euskaraz.

MARTXOAK 14: 22:00 ZINEGOAK, Aita Mari zineman.

MARTXOAK 22: 11:30 KÄFFKA antzezlan, herriko ikastetxeekin, Aita Mari. Euskaraz.

22:00 KÄFFKA antzezlan, herritarrekin, Aita Mari. Euskaraz.

MARTXOAK 26: 18:30 Jabetze eskolaren baitan, Pepa Bojoren ikastaroa. Gaztelaniaz.

MARTXOAK 28: 22:00 ZINEGOAK, Aita Mari zineman.

Udalak herriko balkoietan banderola moreak jartzera gonbidatu nahi zaitu. Udaletxean jazu ezazu!!



STOCK AZOKA

martxoak 9-10
Erribera kalean eta Oxford aretoan

Izugarrizko deskontuak
Trikitilariak, tailerrak, Zumba kalejira...

*Zumaian bizi,
Zumaian erosi*



BALEIKE 285

2019-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
MAITANE OSA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Aurrena Gorka Zabaleta
<i>Sebas</i> | 31 | Osasuna Mavi Carceller
<i>Bideo jokoan arriskuak I</i> |
| 6 | Hitz tantak Izaskun Urbieta Esnal
<i>Unai Rubio</i> | 33 | Heziketa Izar Arregi
<i>Jazarpenaren bide ezkutak</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Javier Carballo
<i>Artea al da argazkilaritza?</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena
Gonzalo Torre
<i>Geoparkeko barnealdeko hezeguneak. Edanleku soilak baino gehiago</i> |
| 10 | Hainbat aburu Maddi Altuna
Galfarsoro
<i>Konplizitatea eta borroka</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Luis Mari Aizpurua, kronikak baino gehiago</i> |
| 11 | Errematea Iosu Alberdi
<i>Bost minutu luze</i> | 42 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Trikitixa giro onean</i> |
| 12 | Elkarrizketa Maria Maya
Manterola
<i>"Polonian badute halako kontzientzia bat hizkuntza gubxituekiko"</i> | 43 | Agenda |
| 16 | Erreportajea Juan Luis Romatet
<i>Lur azpiko sormenean blai</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Izugarrikeria baten memoria</i> |
| 20 | Publierreportajea Biyona | 45 | Nire txanda Kepa Aizpurua
<i>Tabernak, a zer lekuak...</i> |
| 22 | Erretratua Julen Aperribai
<i>Igor Osa, kresalak harrapatuta</i> | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Talentua behar da</i> |
| 26 | Bazkide kluba | | |
| 28 | Plazan bazan | | |

BALEIKE

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Izaskun Urbieta

Maria Maya Manterola
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua

publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8, 20750 Zumaiia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AIZPURUA LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoek seride eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna


Tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaiia (Gipuzkoa)

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKANDEGIA Arkupe

Nagusia 2 • tel. 943-86 16 21
ZUMAIIA

OKI-EDER



Arruti ARROPA BENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943-54 34 06
20790 ZUMAIIA (GIPUZKOA)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkué

www.ricardoazkué.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkué.com fax. 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com

Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bilea

Taberna · Jatetxea
Bar · Restaurante



Finak: frantses, euskara, espagnol, catalan, suomi, baski, catala, frantses, catalan, frantses, catalan, frantses, catalan, frantses, catalan

BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basodi albaitaritzak

filbaitaria
Itxiki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basodoinivet.com
www.basodoinivet.com

Geluz: 11-13 / Armatzaiz: 16-18.30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxita
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etxez ebeko zerbitzua



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Sebas



GORKA ZABALETA

Aurrerapen teknologikoen guru handienetako bat da Nicholas Negroponte estatubatuarra. Munduko ikertzaile onenekin lan egiteko aukera izan du eta horrek abantaila handi bat eman dio: ziurtzat jo ditzake guretzat zientzia fikzio diren hainbat iragarpen. Elkarrizketa batean irakurri berri diot pilula bat hartzea nahikoa izango dela, esate baterako, nahi dugun hizkuntza hitz egin ahal izateko. Dagoeneko ari omen dira ikertzen adimen artifizialeko dosiak piluletan sartu eta neuronekin lotzeko modua. Lortzen badute (Negropontek ez du inolako zalantzarik), pilula horietako informazioa zuzenean gure burmuineko neuronetan idatzita geldituko da, behar dugunerako erabilgarri. Frantsesez jakingo dugu, frantsesa ikasi gabe.

Zaila da sinesten, baina imajina ezazue une batez teknologiaren Nostradamus honek arrazoi duela. Iragarkietan: "Matematika, fisika eta kimikako printzipio eta formula guztiak hamar pilulatan –ez da gomendagarria egunean bat baino gehiago hartzea–"; "Munduko artelan guztien irudien bilduma superpilula bakarrean –orain adituena komentarioekin aberastuta–"; "Lagunekin elkartean afaritarako biltzen zarenean sukaldariari begira gelditzen zarela, zer egin ez dakizula? Lasai, pilula honekin milaka errezeta prestatzeko gai izango zara" ... Eta horrela dena. A zer pagotxa, ezta? Jakintza bildu eta bildu, inolako ahaleginik egin gabe. Imajinatu Internet osoa gure burmuinean...

San Pedro ikastetxean ikasi nuen, aspaldi, Interneten berri Negropontek baino ez zuen garaian. Zorionez, gela zahar haietara aire freskoa ekarri zuten irakasle belaunaldi berri bat egokitu zitzaigun. Sebastian Irastorza, Sebas, zen haietako bat. Donostiarra bera, gizon garaia eta indartsua (are garaiagoa eta indartsuagoa haurren begietatik), bihotz onekoa, pazientzia handikoa eta irakasle zoragarria. Hark erakutsi zidan leziorik garrantzitsuena: zein ederra den ikastea.

San Pedro eskola itxi zenerako unibertsiteteen engoen ni eta Sebasen arrastoa galdua nuen. Behin, Donostian bueltaka nenbilela, liburu denda bateko erakusleihoari begira gelditu eta hara non ikusi nuen Sebas, mostradorean lanean, liburu artean. Hainbeste urtez elkarren berri izan gabe, ez nintzen sartzera ausartu, eta damu naiz. Sebas duela aste batzuk hil da. Jakin berri dut 1980ko hamarkadan, gure irakasle zen urte haietan, hamar liburu mardulez osatutako Historia de Euskal Herria lan entziklopedikoa idatzi zuela beste hainbat egilarekin batera. Negroponteren pilula bakarrean kabitzen dira denak, baina non gelditzen da ikastearen plazera? ■■■■

HARK ERAKUTSI ZIDAN LEZIORIK GARRANTZITSUENA: ZEIN EDERRA DEN IKASTEA

Unai Rubio

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

16 urterekin hasi zen ostalaritza munduan lanean Unai Rubio. Lan horri esker ardoaren mundua interesatzen hasi zitzaion, eta ikasketak ere alor horretara begira egin zituen. Ardoen dastaketa errituan bost zentzumenak jartzen dira dantzan, eta aitortu du ikasteko bide onena dastatzea eta dastatzea dela. “Ardorik onena? Nahi duzun pertsonarekin konpartitzen dena”, nabarmendu du.

Zergatik hasi zinen ardoan interesatzen?

Erraza da ardo bat zerbitzatzea, baina garrantzitsua iruditu zitzaidan jakitea zer ari zaren zerbitzatzen, nola zerbitzatu behar den eta ardo botila horren atzean zer dagoen .

Nabaritu zenuen bezeroek zerbitzu hori eskatzen zutela?

Badago jendea ardo berriak probatzeko prest dagoena, eta Zumaian horrelakoak badaude. Gainera, herriko tabernetan ardo aukera zabala eskaintzen dute, eta jabeak eta langileak ere formatzen dabilta. Ardoen mundua ez dago bakarrik goi mailako ostalaritzari zuzenduta eta Zumaian ere esfortzua egiten ari dira.

Esan daiteke ardo gero eta gehiago edaten dela?

Ardo jendearen elkarrizketetan dago, eta tabernariak saiatzen ari dira ardo eta erreferentzia berriak sartzen, baina oraindik, eta batez ere jende gaztearengan, ez dago ardo edateko kulturarik. Hala ere, uste dut ardoarekiko interesa pizten ari dela, baita jendearen jakituria zabaltzen ere.

Sommelier teknikoa zara, baina etengabeko formakuntzan buru-belarri zaude.

WSET (Wine & Spirit Education Trust) sisteman sartuta nago eta mundu osoko ardo industriari buruz ikasten ari naiz. Azterketa teorikoak eta praktikoak egiten ditut. Azkena izan zen itsu-

itsuan 12 ardo dastatzea eta bakoitza deskribatzea.

Zer ezberdintasun dago enologoek eta sommelierren artean?

Enologoak Enologia Ingeniaritzaren ikasketak egiten ditu, eta ardo egiten duen pertsona da, prozesu guztia kontrolatzen duena; sommelierren lana, berriz, ardo zerbitzatzera dago zuzenduta. Ostalaritzan, adibidez, ardo erosteaz arduratzen da, baita bezeroei aholkuak emateaz eta zerbitzatzeez ere. Kritikoak eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituztenak ere badaude.

Ardo dastaketetan, zer parametro erabiltzen dira?

Lau pauso izaten dira. Lehendabizi, ardoaren argitasunean jartzen da arreta; gero, usainari erreparatzen zaio; hirugarrenik, ardo ahoan sartu eta zer aroma duen esan behar da; eta, azkenik, hori guztia eginda, ardoaren ezaugarriak zein diren esaten da. Horren arabera, eta kriterio bati jarraituz, ardo sailkatu egiten da.

Ardo dastatzeko era ezberdinak daude?

Bai. Dastatze bertikalean urte ezberdinetako ardo berdinak dastatzen dira; dastatze horizontalean, berriz, bodega ezberdinetako urte bereko ardoak probatzen dira; eta, azkenik, dastatze komertzialean, bodegetako arduradunek beraien ardoak aurkezten dituzte jendaurrean.

Zer behar du ardo on batek?

Topikoa da esatea, baina ardorik onena da bakoitzari gustatzen zaiona, ezagutzen duena, senide batek edaten duena... Gaur egun ez da ardo txarrik egiten. Teknologia asko lagundu du horretan; hori bai, lehengaia ondoen zaintzen duenak egingo du ardorik onena. Historikoki ardo ona egiten duten izenak daude eta horiek horrela jarraitzen dute, baina orain hasiberriak diren ekoizle txiki asko dago, eta oso ardo onak egiten dituzte. ■■■■



Artea al da argazkilaritza?

ARGAZKIA ETA TESTUA: JAVIER CARBALLO

Galdera horixe egin zuen Robert de la Sizeranne (1859-1936) idazle frantsesak *La Revue des Deux Mondes* aldizkariko artikuluko batean 1897an, eta denbora luzez eztabaida ugari piztu zituen. Gaur egun, aurreiritziak argituta, prestigio handiko museo askok erakusten dituzte balio artistiko eta merkantil handiko argazki lanak.

Baina inoiz ere ez zen zalantzan jarri argazkilaritzaren hasiera-hasieratik (1829, Niépce eta Daguerrekin) argazkilaritzak nola ematen duen mundu honen historiaren fede eta lekukotza.

Hain zuzen ere, argazkiaren dokumentu izaera funtsezkoa da 1968ko argazki honetan, eta hor azaltzen diren bost osagaitan: trainerua, arrasteko arrantza ontzia, zama ontzia, hotela eta palazio dorrea; horiek guztiak duela mende Erdiko Zumaiaren historiaren zatiak dira.

1968ko udaberriko goiz bat zen. 1954tik lehorrean egon ondoren (beraz, aurreko 14 urteetan), gure traineruaren aurkezpena zen. Arraunzale batzuek, Jose Ignacio Apestegi buru zela, gure herrian berriz ere arraunari heltzea erabaki zuten. Nire Voigtlander Vito B kamerarekin, zuri-beltzeko karrete negatiboa sartuta, argazkia egin nuen manterolatarraren *Arritxu* bateletik.

Traineruan, Manuel Galarraga zihoan patroi, eta arraunlari, berriz, hauek: bi anaia Iturralde, hiru anaia Ibar, bi anaia Egaña, Osa, Arce, Zurutuza, Apestegi, Amilibia, Gomez, Duran, Galarraga... 15 arraunlari aipatu ditut nahita, jakinaren gainean traineruan 13 arrastere ez direla, baina beste biak ere taldekideak ziren.

Moilan, egurrezko bi arrantza ontzi daude lotuta; batak, Ferroleko matrikula dauka, baina ezin da bereizi zenbakia; bestea, berriz, *Sol de verano* arraste ontzia da.

Moilan bertan, *Urmaya* zama ontziaren kaskoa dago. Balenciaga SA ontziolak egin zuen Bilboko Enrique Rodriguez Polledo armadorearentzat. 1968ko otsailaren 15ean uretaratu zuten.

Eskuinaldean, atzealdean, Gran Hotel Amaya dago, Cosme Iraundegi Aizpuruarena, Luis Martínez Kleiserrek bultzatutakoa proiektua. 1923ko ekainean inauguratu zuten, bi solairurekin. Espainiako Gerra Zibilean ospitale militarra izan zen. 1946an 3. eta 4. solairuak eraiki zituzten, baita garajea ere. Zinema-antzokia ere bazeukan, eta 1952an igerilekua, tenis pista eta frontisa eraiki zituzten. 1977an bota zuten.

Ezkerraldean, Talaimendin, Plasenciako kondearen palazioa ageri da, Dorretxe hau Bernarda Leturiondorena eta haren senar Jose Agustín Arbillagarena zen; azken hori enpresarioa zen, Arbillaga zaku fabrikaren nagusia. 1906ko maiatzaren 17an saldu egin zioten Jose Maria de Arrospide y Alvarez, makina bat titulu zeukanari. Arrospide sendiak jauregitxoan igarotzen zuen udara.

1940tik, dorretxeko kontserjeak Martín Aginagalde eta Maria Rita Urbieta izan ziren, eta han bizi izan ziren Candido, Juanita, Victor eta Maria Jesus seme-alabekin. Aginagaldetarrak gutxi gorabehera 1967an alde egin zuten jauregitxotik, eta urte batzuk geroago eraitsi zuten palazioa. ■■■■





Javier Carballo



MADDI ALTUNA GALFARSORO

Konplizitatea eta borroka

Virgine Despentese *King Kong teoria* liburuan aipatzen dituen guzti horietakoak elkartu ginen: itsusiak, atso zaharrak, mari mutilak, larrutan gaizki jotakoak, larrutan gehiegi jotzen dutenak, histerikoak, neska gaiztoak (eta txintxoegiak), lodiegiak eta argalegiak, ezpainak fin margotutakoak eta gehiegi makillatzeagatik desmakillatuak, lotsatiak eta lotsagabeak, ahulak, indartsuegiak, ama txarrak eta neska lagun sumisoegiak. Asko izan ginen. Gogoratzen duzu?

Asko izan ginen, bai. Ez ginen guztiak izan, baina. Eskerrak gure pribilegioak gogorarazten dizkiguten kideak ere ondoan ditugun! Egun hartan, gure – bai, zumaiar zurion– aiton-amonak zaintzen dituztenak,

langile prekarizatuena... ezin izan ziren (ezin izango dira) kalean egon. Ez dezagun ahaztu. Har dezagun martxoaren zortzian, eta egunerokoan, horren ardura. Egingo dugu?

Istorio desberdinek gurutzatzen gintuzten gutako bakoitza; emakume* adina istoriok, zehazki. Bizitza osoa etxeko lanak –dohainik– egiten pasa eta baloratua ez izatearen kontzientziak eraman zuen emakume* adineko bat kalera, bastoi eta guzti. Lehen txortaldian bortxatua izan zela konturatzeak beste neska* gazte bat. Hitzaz azaldu ezin den

MILAKA BIZIPEN ETA OIHU BAT: GORA, BORROKA, FEMINISTA!

zerbaitek mugitu zituen asko eta asko. Zerk eraman zintuen zu kalera?

Asanblada feministan militatzen hasi berria zen neska* gazteak inoiz baino ozenago egin zuen oihu: *go-ra, bo-rro-ka, fe-mi-nis-ta!* Alabarekin feminismoa zer zen ezagutu zuen emakumeari* minez eta harrotasunez lehertu zitzaizkion barruak, hurrengo belaunaldiak hartua zuen hautua sumatzean. *Go-ra, bo-rro-ka, fe-mi-nis-ta!* Feminismoa urteetan bazterrean ikusi zuen feministak, ahoa eta begiak ezin itxita pasa zituen errepidean eserita igarotako 10 minutuak. *Go-ra, bo-rro-ka, fe-mi-nis-ta!* Kuadrillan gerturatu ziren asko. *Go-ra, bo-rro-ka, fe-mi-nis-ta!* Irratian “gizon adituak” “makroekonomiaz”

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IOSU ALBERDI

Bost minutu luze

Lagun batekin hitzordua jarria nuen, eta metroa hartzera nindoan Madril zeharkatzeko. Batetik bestera mugitzeko erarik azkarrena da, baita galtzeko aukera gutxien ematen didana ere —Google Mapsen laguntzaz—. Bagoira sartu eta Espainiako banderak lepotik zintzilik zeramatzatzen hiruzpalau lagun ikustean konturatu nintzen, ordea, zetorrenaz. Joan den otsailaren 10eko 11:30ak inguru ziren, eta zeharo ahaztua nuen ordu erdi geroago hastekoa zela PP, Vox, Ciudadanos eta eskuin muturreko beste hainbat taldek babestutako manifestazioa. Plaza betetzeko lanak izan arren, hainbat hedabiderentzat “herritarren aldarria” izan zen.

Nire geltokira iritsi eta bagoitik atera nintzen, haiek guztiak atzean utziko nituelakoan. Baina koitadua ni. Badirudi geltoki hura Colón plazatik gertu dagoela —idearik ez nuen—. Konturaterako jendartean harrapatuta nengoen, *piperpoto* artean. Jendea ateratzen ari zen argazkietan ez agertzeko, burua makurtu eta aurkitutako zirrikitu guztietatik ihes egitea lortu nuen. Bost bat minutuko kontua izango zen, baina betierekoa egin zitzaidan.

Albisteak irakurtzean lasaitu nintzen, ez dira hainbeste ezberdin pentsatzen dutenak kartzelan nahi dituztenak. Halere, gehiegi dira, eta boterean daude. ■

txutxumutxuka entzuten zituen bitartean soldatapeko lanorduak betetzera joan aurreko 10 minutuetan oraindik etxean aspiragailua pasatzen zuen eta “mikroekonomian” aditua zen emakumeak* behingoagatik erabaki zuen haurrei eta senarrari gosaria, bazkaria, askaria eta afaria kozinatu, zerbitzatu eta garbitu gabe uztea, hargatik bere burua zalantzan jarri bazuen ere.

Go-ra, bo-rro-ka, fe-mi-nis-ta! Bere gorputza gorrotatzetik maitatzerako prozesuan murgilduta zeuden hamarnaka neska* eta emakume* determinazioz atera ziren kalera. Zer sentitu zenuten?

Milaka bizipen. Eta oiuhu bat: *go-ra, bo-rro-ka, fe-mi-nis-ta!* Gero eta ozenagoa: *GO-RA, BO-RRO-KA, FE-MI-NIS-TA!* Oiuhu bat eta mila istorio. Oiuhu

bat eta mila istorio, historiaren une berean. Zapalkuntza beraren aurrean, egiturazko biolentziaren aurrean, historia egiten. Bizitzen alde historia egiten.

Hori erakusten digu feminismoak: gure susmo, gure uste, gure kontu “pertsonek” eta gure “esajerazioak” eremu politikoan eta ekonomikoan kokatzen. Eta feminismoak (eta gure lagunek, kideek eta konplizeek) sistema heteropatriarkal kapitalistaren atzean dauden biolentzia guztiak identifikatzen erakusten digunetik, egunetik egunera, gobernaezinagoak bihurtzen ditugu gure bizitzak. Horrek egiten du atzerazekin aldaketa.

Horretan ari gara. Martxoaren Zortzian, beste behin, konplizitatez eta borrokaz beteko ditugu kaleak. ■



"Polonian badute halako kontzientzia bat hizkuntza gutxituekiko"

MAITANE OSA EUSKARA IRAKASLEA

Poloniako Poznan hirian bizi da egun Maitane Osa. Etxepare Institutuaren beka bati esker joan da, hilabete batzuetarako. Adam Mickiewicz Unibertsitatean euskara klaseak emateaz gain, euskal kulturaren eta historiaren berri ematen die ikasleei. Asko gustatzen zaio denbora librean hiriko kaleetan galdu eta leku berriak ezagutzea, eta harreman berezia du ikasleekin.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Maitane Osa**.

Nola izan zenuen Etxepare Institutuaren bekaren berri? Gasteizen Euskal Ikasketetako gradua ikasi nuen, eta bertan zerbait entzun izan nien beste ikasle batzuei. Ondoren, gertuko jendea aukera honetan sartu zela ikusi nuen; esaterako, Maia Ossa laguna, arroarra. Beti erakarri izan nau aukera honek, bidaiatzeko eta leku berriak ezagutzeko aukera paregabea delako, eta gustuko dudan zerbait egiten, gainera.

Jende euskalduna ezagutu duzu bertan?

Hemen ezagutu ditudan euskaldunak Erasmus programari esker etorri dira, batik bat. Poznanen bizi naiz ni, eta ikasle hiri bat izanik, ikasle kopurua izugarri altua da. Bestalde, nik lan egiten dudan unibertsitatean badira urte batzuk euskara klaseak ematen direla, eta, horregatik, egin ditudan lagun eta ezagun batzuek ezagutzen dute bere ikasketetan euskara ikasi nahi duen jendea. Gehienek Hispaniar Filologia ikasi dute, baina Hizkuntzalaritza ikasi duenik ere badago.

Zer nolako ikuspegia dute poloniarrek euskararekiko? Eta euskaldunekiko?

Poloniera hizkuntza eslaviarra izanik, eta euskarak gaztelaniarekin eta ingelesarekin zerikusirik ez duenez gero, lehenengo aurreiritzia beti da euskara zaila dela eurentzat. Baina hizkuntzak ikastea orokorrean ez da gauza erraza, lan egitea eskatzen du. Eta lor daiteke, ikasteko konpromisoa hartu eta pixkanaka aurreratuz gero. Horregatik, nik beti esaten diet euskara ez dela zaila, ezberdina baizik, baina hori ona dela. Euskaldunekiko, berriz, esango nuke oso lagunkoi ikusten gaituztela. Gure harremantzeko moduan ezberdintasunak ditugu. Hemen jendea hotzagoa da, eta ez da hain erraza harreman estuak egitea. Honekin ez dut esan nahi mundu guztia hotza denik, baina orokorrean sumatu dut halako urruntasun bat. Beraz, eurentzat irekiak eta lagunkoiak garelako esango nuke. Agian eguraldiak eta bizitzeko moduak eragina izango du...

Zein da zure egitekoa Polonian?

Adam Mickiewicz unibertsitatean hispaniar filologiako eta hizkuntzalaritzako ikasleei euskara klaseak ematen dizkiet. Normalean hizkuntza bera irakasten dut gehienbat, baina saiatzen naiz horretara ez mugatzen. Euskal kultura eta historia





ere azaltzen eta irakasten saiatzen naiz, ahal dudan moduan. Ahal bada modu entretenigarrian. Baina eurek ere asko irakasten didate niri. Klasean asko hitz egiten dugu gure herrialdeetako historiaz eta kulturez.

Zer gustatu zaizu gehien? Gutxien?

Lehen galdera zaila da azaltzen. Ikasleekin dudan harremana oso berezia da; beraz, hori asko gustatzen zaidala esango nuke. Izugarria iruditzen zait unibertsitateko ikasle batzuk eurek nahi dutelako euskara ikastera etortzea. Bestetik, hiri ederra da ni bizi naizena; asko gustatzen zait denbora dudanean galdu eta leku berriak ezagutzera. Janaria eta edaria ere (vodka eta garagardoa dira hemen gehien edaten diren edariak) asko gustatzen zait. Eta gainera, zlotyak [Poloniako dibisa] dituztenez, merkea da kanpoan bizitza egitea.

Bigarren galdera erantzutea errazagoa egiten zait. Gutxien gustatzen zaidana egun argiak gutxi irautea da. Egunen baten berandu samar esnatzen bazara, neguan ordu gutxi izango dituzu eguzkia ikusteko. Eta horrek tristura puntu bat ematen du

normalean. Baina, tira, udaberrian berriz argi gehiago sartzen eta tenperaturak igotzen hasiko dira.

Euskara irakaslea zara bertan. Zenbat ikasle dituzu? Zergatik ikasi nahi dute euskara?

Guztira zortzi ikasle ditut. Hizkuntzalaritzakoak lau dira, eta talde bat osatzen dute. Hispaniar Filologiakoak, berriz, beste lau dira; bi bigarren mailakoak eta beste bi hirugarren mailakoak. Orokorrean, euskara ikasteko bi arrazoi dituztela esango nuke: batetik, hizkuntza ez indoeuroparra da, eurek ikasten dituzten beste hizkuntzetatik (ingelesa, portugesa, frantsesa, espainiera, katalana...) guztiz ezberdina; eta, bestetik, hizkuntza minorizatua da, eta badute halako kontzientzia bat hizkuntza gutxituekiko. Oso ikasle onak dira, ni neu harrিতa nago ulertzeko duten gaitasunaz, eta, gainera, lan asko egiten dute. Pixkanaka nola aurreratzen duten ikustea irakasle batentzat izugarri motibagarria da. Bestalde, talde txikitlan lan egitea abantaila handia da.

Zein hiritan bizi zara? Nolako da?

Poznan hirian bizi naiz, Polonia Handia probintzian. Kokapen ona duela uste dut, beste hirietatik nahiko gertu dagoelako; baita Berlinetik ere. Alemaniako muga hortxe dauka. Hiri handia da, nahiko zaharra, eta historikoki garrantzitsua izan da. Ikasle asko daude, unibertsitate asko dituelako, eta kanpotik etortzen direnez gain, ikasle asko etortzen dira Polonia osoko beste hiri eta herrietatik. Esaterako, Lublin eta Gdanskeko ikasleak ditut. Hiri nahiko zabala da, erdigunea oso bizia da eta zaratsua da, baina kanpoaldean leku lasai eta ederrak ere badaude; Malta lakua, besteak beste. Udan hondartza publiko bihurtzen da hau.

Euskal Herriarekin alderatuta, oso ezberdina al da? Zertan?

Nahiko ezberdina da, bai. Lehen aipatu dudan moduan, hasteko harremanetan jartzeko modua ezberdin samarra da. Jende oso interesgarri eta aberatsa ezagutu dut, baina hasieran ez zen erraza izan hurbilpena.

Bestetik, klima oso ezberdina da, hemen tenperaturak baxuagoak dira. Hala ere, nire hiriko hotza ez da hezea (Euskal Herriko kostaldekoa bezalakoa), eta tipula bat bezalaxe jantzita, ahalik eta geruza gehien gainean eramanda, hotzari aurre egin ahal zaio.

Ohitura ezberdinak ere badituzte. Egund argia laburragoa denez, lehenago jaikitzen dira, eta



Maitane Osa, ezkerrean, ikasle talde batekin.

lehenago oheratu. Jatordu ezberdinak dituzte: gosari potentea egiten dute; ondoren, bazkaltzeko orduan zerbait arina jaten dute, eta arratsaldean, merienda orduan, afari merienda bat egiten dute. Hala ere, ni ikasle erresidentzia batean bizi naiz, eta bertan mundu guztiko jendea dagoenez, denetarik ikusten dut. Batzuk bazkaria egiten hasi orduko, beste batzuk jada afaltzen ari dira.

Itzuliko zinateke?

Bai.

Zer egiten duzu zure denbora librean?

Irakurri, musika entzun, kirola egin, baxu elektrikoa jotzen ikasten ari naiz, eta parrandan ere irteten naiz.

Pentsatu duzu zer egin itzultzean?

Ez. Lanean jarraitzea pentsatu dut, baina agian etorkizunean zerbait gehiago ikatea gustatuko litzaidake. Egia da behin kanpora joateko beldurra kenduta, mundua gehiago deskubritzeko gogoia etortzen zaizula.

Polonia politikoki une korapilatsuan aurkitzen da. Nola bizi duzu?

Partidu politiko ultraeskuindar, kontserbadore eta katoliko bat (*Prawo i Sprawiedliwo*) ari da agintzen gaur egun Polonian, eta egia da topo

egin dudan zenbait jenderengan ikusi ditudala jarrera edo pentsamendu nahiko kontserbadoreak. Esaterako, emakumezkoak diren ikasle gehienei karrera amaitzean zer egin nahi duten galdetuz gero, gehienek ez dakiela esango du, seguraski; beste multzo handi batek ezkondu eta ama izan nahi duela esango du, familiari beren bizitza emateko; eta multzo ez hain handi batek, aldiz, ikasten jarraitu nahi duela esango du.

Hori oso esanguratsua da niretzat. Familia eredu nuklearraren ideia barruraino sartuta du gizartearen gehingoak. Gehienak oso katolikoak dira, gainera.

Bestetik, eremu alternatiboetan ibiltzen den jende ezkertiarra ere ezagutu dut, ez da hain arraroa. Baina, ekialdeko Europaren historia oso korapilatsua da ulertzeko, eta mendebaldeko mugimendu alternatiboekin baditu bere ezberdintasunak. Oso interesgarria da, hala ere. Baina ezin da ukatu, zoritxarrez, arrazakeria eta beste hainbat zapalkuntza nabariak direla. Nik neuk ez dut inoiz eraso xenofoborik ikusi, baina egia da zuriak ez diren etorkin oso gutxi daudela, eta hori zerbaiten seinale da. ■■■

Lur azpiko sormenean blai

Bozgorailu mediatikoen bidez heltzen zaizkigun proposamen artistiko distiratsuek isla izaten dute ispiluaren beste aldean, lurraren azpian, undergroundean. Ilunpean egoten diren proposamen hauek glamour gutxiago izaten dute, apalagoak dira, baina, sarritan, askotan, gehienetan, interesgarriagoak izaten dira.

Testua: **Juan Luis Romatet.**
Argazkiak: **Chiara Srebernic.**

Undergroundaren mundu honetan eroso mugitzen da Aritz Paredes zumaiarra. 1983an jaioa, 35 urte ditu gaur egun, baina solasaldian zehar dioen bezala, adinari ez dio kasurik egiten. “Horrek ez du axola. 35 urte ditut orain, baina 20 urteko batek nik baino bizipen gehiago izan ditzake. Bizitza bakoitzak bere bidetik eramaten du. Hori da ideala, eta nik, behintzat, bizitza hala daramat”, dio. Mexikotik etorri berria da. Hiru hilabeteko oporrak igaro ditu han. “Hildakoen Egunean heldu ginen, eta han ibili gara batetik bestera bidaiatzen. Hori da herrialde bat ezagutzeko modu bakarra”. Ohikoa dugun bezala, taberna batean jarri dugu hitzordua solasaldi honetarako. Artisau motako garagardoa eskatu du. Mila arrazoi izango dira horretarako, baina bat, behintzat, zentzuzkoa da: musika munduan ezagututako lagun batek egindako zerbeza eskatu du. Nik ere berdina eskatu dut.

Euskal Herriko (eta gure mugaz kanpoko) undergroundean ere aski ezaguna da Aritz. Makina bat musika taldetan aritua, Arrotzak taldeko baxu jotzailea da 2015etik hona. *Lurzor* hotzetik izeneko diskoa argitaratu zuten iaz, eta Aste Santu inguruan biran aurkeztuko dute Europan zehar. Haziak, baina, aspaldi erein zituen. Musika munduan txikia zenetik dabilela dio. “Beti egon naiz musika munduan sartuta. Musika Eskolan ibili nintzen txikitari solfeo ikasten, eta akordeoia jotzen hasi nintzen”. Barrezka hasten da hori gogoratzean. Gogoratzen du akordeoia ikasten zuen gelako leihotik Ubilloseko entsegu lokalak ikusten zituela. Gogoko zuen musikan eta entzuten zituen kontzertuetan, gainera, akordeoiak presentzia handirik ez zuen. “Beti izan dut musikarako belarri ona, baina instrumentu horrek ez ninduen motibatzen. Txikitatik joan izan naiz kontzertuetara, eta punka eta rocka betidanik gustatu izan zaizkit. Ikusi nuen hori gustatzen zitzaidala, eta osabari gitarra eskatu nion. Aurretik ere portxeetan ibiltzen nintzen lagunekin gitarra jotzen: Nirvana, Metallica eta abar jotzen genituen.



Pentsatzen nuen musika futbola bezalakoa zela: futbolean batzuk Realekoak dira, eta besteak Athleticcekoak. Gurean bat Metallicakoa zen, bestea Megadethekoa, eta hurrengoa Nirvanakoa”.

Zumaian lagunartean jotzen zuen, baita Ubilloseko entsegu lokalak bisitatu ere. Baina taldeak sortzeko hemendik irten behar izan zuen. “Jotzeko beti mugitu behar izan dut. Hemen, Zumaian, entsegu lokalak zeuden, eta lagunekin jotzera joaten nintzen. Asko bizi izan dut hori, baina, musikalki, gehiago garatu naiz kanpoan, Donostian, bereziki, hasieran”. Ingeniaritza ikasten hasi zen Donostian, baina utzi egin zuen, eta diseinu grafikoa, inpresioa, serigrafia eta argazkigintza ikasten hasi zen. Bartzelonan jarraitu zuen ikasten, eta denbora batez bertako underground mugimenduan murgiltzeko aukera ere izan zuen. “Punkak, fanzineek, horrek guztiak, gauzak norberak egitera eraman gintuen. Bagenekien gauzak nola egin behar ziren, eta do it yourself [zuk zeuk egin, ingelesez] filosofiak eragin handia izan zuen gugan. Askoz gehiago asebetetzen zaitu gauzak zuk zeuk egiten dituzunean, zuk grabatu duzunean, zuk diseinatu duzunean”. Filosofia horri zintzo jarraituta, ateratako disko guztiak autoedizioak izan dira. “Guk ez ditugu diskoak produktu bezala ikusten, harribitxiak bezala baizik. CD bat ateratzerakoan ez ditugu kopiak fabrika batera enkargatzen. Kartoiak erosi eta serigrafiatu egiten ditugu, dena guk egiten dugu. Horrek harribitxi bihurtzen ditu, eta kontzertu batera etorri eta ikusitakoa gustukoa duen norbaitek bere etxera eraman dezake.



Arrotzak kontzertuan. XA BI.



Curasánen *Curasangre* eta *Arrotzak*en *Lurzoru hotzetik* diskoen azalak.

Donostian ikasten ari zela hardcore talde batean jotzen hasi zen: “kantak eginda zituzten eta haiek ikastea zen kontua. Baina ez ninduen asko betetzen; sormenari garrantzi handia eman izan diot beti, hori da gustatu zaidana. Ondoren, 2004 edo 2005. urtean, talde bat sortu nuen beste lagun batzuekin”. Talde hark Curasán zuen izena, eta garai hartan entzuten zenarekin zer ikusi handirik ez zuela dio Aritzek. “Jendeak ez zuen ondo ulertu zer egiten ari ginen, baina, gero, urteak pasa ahala, talde dezente atera dira ideia berdinekin: melodia desberdinak, gitarra garbiak, ohiko 4x4tik ateratzen ziren erritmoak...”. 2006an *Richard Pryor* izeneko diskoa atera zuten, eta hiru urte geroago *Apollo Creed ep a.k.a. Eurasian* lau abestiko

EPa [EP edo extended play lau abestiz osatutako disko txikiak dira]. Urte horretan bertan *Decurs* taldearekin batera beste EP bat argitaratu zuten, eta 2011n *Curasangre*, beraien azken lana. Azken disko hori biniloan atera zuten. Lan horiek guztiak taldearen *Bandcamp*en entzun daitezke.

Geldirik egoteko gogorik ez, eta Bartzelonan igarotako urteetan talde gehiagotan aritu zen. Euskal Herrira itzultzean beste talde bat sortu zuen urte batzuk geroago *Arrotzak*eko partaide izango zen Aritz Aranbururekin. Horrekin nahikoa ez eta Kriston Zintak zigilua sortu zuten. “Gure inguruko taldeek grabatu eta argitaratu ez zituzten lanak ateratzeko asmoarekin sortu genuen. Betiere kasete formatuan. Lagunen gauzak atera genituen, baita gureak ere. Zintan ateratzen genuen, formatu analogikoa izanda, ekoizteko oso merkea zelako”.

Gauzak nola diren. Erabat alde batera lagata zegoen kasetea. Orain, biniloaren boomaren ondoren, industriak formatu hau ere berreskuratzeko lanak hasi ditu, kopuru txikitara bada ere. Edozer gauza musikazaleen poltsikoei zukua ateratzeko. “Metallicak ere ateratzen ditu kaseteak, 20 euroan. Mainstreamean azken bi urteotako kontua da, baina undergroundean beti mantendu da. Bartzelonan nengoenean, adibidez, 2005. urte inguruan, musika industrialera egiten zuten talde dezente zegoen, eta kaseteekin egiten zuten lan. Diote binilozko diskoak berreskuratu egin direla. Ez, ez da egia, biniloa ez delako inoiz joan. Bada, kasetekin berdina gertatu da”.

Arrotzak munduan zehar

2015ean sortu zen abentura honen beste pasarte bat: *Arrotzak*, Gipuzkoako lau herritako beste hainbat lagunek sortutako punk rock taldea. “Hasieran lau lagun ginen: Fer, abeslaria, Lasarte-Oriakoa; Mikel, bateria, Andoaingoa; Aritz, gitarra, Getariakoa; eta ni baxuan. Bakoitza bere herrikoa. *Arrotzak* izena ere agian hortik dator: arrotza senti zaitzke zure familian, zure herrian, inguruan, norberaren gorputzean... Genero kontu hauekin ere ikus dezakezu zer arrotza senti zaitzkeen”.

2016an taldearen izen bereko lehen kasetea atera zuten Kriston Zintaken bidez. 100 kopia besterik ez zituzten atera eta dagoeneko agortuta dago. "Azala Paula Estevezek egin zigun. Aritz Aranbururen beste taldean, Oki Mokin, baxu jotzailea da". *Lurzoru hotzetik* diskoko azala ere Paulak egin die. "Kaseteak nahiko harrera ona izan zuen, eta Frantzian jotzeko aukera izan genuen".

Orain bi urte, bateria jotzaileak, Mikelek, taldea utzi zuen. "Aldaketa naturala izan genuen: Fer bateria jotzailea ere bada, eta argi ikusi genuen atzera joan beharko zuela, bateriara". Hirukote formatuan grabatu dute azken disko hau. "Soinu aldetik zertxobait arindu dugu. Taldea sortu genuenean zerbait sinplea nahi genuen,

azkarra eta bizia. Iazko ekainean grabatu genuen eta gure asmoa biniloan ateratzea zen. Jendeak, baina, zerbait eskatzen zuen, eta lehenbizi CDan atera genuen". Binilozko edizioa Paredes Mexikon zela atera zuten. Izandako erantzunarekin harrিতa dagoela dio. "Durangon izan zen salgai, Musika Zuzeneanen standean, eta denak saldu zituzten. Abuztuan Bandcampera igo genuen. Sare horrek mundu mailako zazpi disko garrantzitsuenen berri ematen du astero, eta aste horretan gurea zegoen zazpi horien artean. Orain gutxi Seattle (Estatu Batuak) hiriko irrati ezagun bateko DJ batek idatzi digu; diskoa bidaltzeko eskatu digu".

Taldea hasi da berriro kontzertuak ematen. "Proposamen askori esan diogu ezetz, kanpoan nenguelako. Geldialdia agian ondo etorri zaigu, espektatibak sortu direlako". Europa mailako bira egingo du Arrotzakek apirilaren 12tik maiatzaren 1era arte. "Frantzian, Belgikan, Alemanian, Txekiar Errepublikan, Hungarian, Eslovakian, Italian edo Suitzan joko dugu. 20 egunez arituko gara hiriz hiri hotzen eta jendea ezagutzen. Azkenean, hori da garrantzitsuena: harremanak estutzea".

Beti ere undergroundaren barruan. "Beti aritu naiz erosoago horrela. Diseinuarekin jarraitzen dut, eta kontzertuak antolatuta ditut. Baita Torreberri ere, desberdin antolatuta. Hemen kristoren zortea dugu, sekulako amarauna dagoelako kontzertuak emateko. Musikatik ez dut gauza handirik espero. Behar bat da, gehienbat. Ogibide bihurtzeko aukera sortuko balitz, gustura joko nuke gitarra edo baxua. Baina, musika niretzat da... Beno, askotan esan izan dut, eta txorakeria bat da, baina jende bat psikologoarengana joaten den bezala, beste batzuek taldeak sortzen ditugu. Musikarekin, letrekin, sormenarekin, barrenak husten ditugu". ■■■



Arrotzak. XA BI

**"PUNKAK, FANZINEEK,
HORREK GUZTIAK,
GAUZAK NORBERAK
EGITERA ERAMAN
GINTUEN"**

**"HEMEN ZORTEA DUGU,
SEKULAKO AMARAUNA
DAGOELAKO
KONTZERTUAK
EMATEKO"**

BIYONA

Barne diseinuan eta proiektu integraletan adituak

Biyona Berrikuntzak enpresak duela 15 urte ireki zuen Zumaiako egoitza. Aurretik, Azkoitian hasi zuen bere ibilbidea, eta geroago Zarautzen ere zabaldu zituen ateak. 40 urte baino gehiagoko esperientzia dauka etxeko berrikuntzetan aritzen den enpresa honek. Proiektu osoetan adituak dira, eta barne diseinua dute indargune nagusietako bat.

Tendentziei eta modei jarraituz

Urte horietako guztietako esperientziari kasu eginez, gaur egun, barne diseinuan erabat murgilduta daude Josune Odriozola eta Idoia Aranburu Zumaiako Biyona dendaren arduradunak. “Etxeko erreforma integralak edo partzialak egiteaz gain, bezeroek, gero eta gehiago, etxea jantzen laguntzeko eskatzen dute”, nabarmendu dute. Horretarako, sektoreko azoketara joateaz gain, interiorismoko azken tendentzietan eta berrikuntzetan eguneratuak daude. “Joera eta moda kontuei jarraitzen diegu eta horietan jantzita egoten saiatzen gara. Azkenean, proiektu baten hasierako prozesutik azkeneko detailea jarri arte gure eginkizuna da”, adierazi dute. Gauzak horrela, etxeko estantzia guztietarako ideiak

aurki daitezke Zumaiako dendan: bainugelarako, sukaldarako, egongelarako, logelarako...

Gremioen koordinazioa

Enpresaren punturik indartsuenetariko batzuk dira gremioekin duten harremana eta elkarlana. “Egiten ditugun erreforma guztietan gu arduratzen gara bai aurrekontua egiteaz, bai obra baimena eskatzeaz, baita gremio guztiak koordinatzeaz ere. Horrek bi abantaila on dauzka: obra azkar bukatzea eta bezeroa ezertaz ere ez arduratzea”. Urte askotako esperientziaren ondorioz, bezeroekin duten konfiantza erabatekoa da. “Ahoz ahoko komunikazioak funtzionatu du gure kasuan, eta asko dira bezeroren batek gomendatuta etortzen direnak”, azpimarratu dute.





Bertako marken aldeko apustua

Kalitatea oinarri hartuta, lehen mailako materialak, tresnak eta dekoraziorako osagarriak erabiltzen dituzte Biyona Berrikuntzan, eta Zumaiako dendan, batik bat, bertako markekin lan egiteko hautua egin dute. Diseinu aldetik, esaterako, hemengo enprekin egiten dute lan, adibidez, Treku, Ondarreta eta Codis enprekin; hain zuzen, Urola Kostako eta Gipuzkoako lantegiekin. “Truditzen zaigu kalitate oneko produktuak egiten dituztela, eta bertakoak izanda, beraiekin elkarlanean aritzeak asetzen gaitu”, adierazi dute. Horrez gain, betidanik ezagunak diren markekin ere lanean jarraitzen dute. “Lehen mailako kalitatea duten etxeekin ere funtzionatzen dugu”.

Zerbitzu pertsonalizatua eta gertukoa



Bezeroak dituen gustuetara, beharretara eta aurrekontuetara egokitzen dira. “Giltzarekin asko egiten dugu lan, hau da, bezeroak bere etxeko giltza eman, eta gudan konfiantza osoa jartzen dute lana aurrera eramateko”, nabarmendu dute. Horretarako, bezeroekin duten harremana

gertukoa eta bi noranzkoko da. “Elkar ezagutzea da gakoa, eta bezeroaren beharrak eta gustuak zein diren jakitea. Atsegin dugu askatasun osoarekin lan egitea, eta diseinuan indar handia jartzea”.

Hitzordu bidez

Biyona Berrikuntzak dendaren ordutegia, asteartetik ostiralera, hau da: 09:30etik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:30era. Astelehenen goizetan itxita egoten da, baina arratsaldetan hiko ordutegian zabaltzen dute. Horretaz gain, larunbat goizetan ere irekita egoten da goizetako ordutegi berean. Normalean hitzordu bidez egiten dute lan. “Formula horren aldekoak gara, eta hori nahi dugu bultzatu. Azkenean, antolakuntza aldetik hobeto bideratzen dugu lana”.

BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA
943-14 34 43
www.biyona.net ·  

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA



Kresalak harrapatuta

Igor Osa Goikoetxea, lehorretik itsasoari begira

Ogibidea soilik ez, bizimodua ere bada arrantza Igor Osa Goikoetxearentzat (Zumaia, 1976). Hala behar du, ezinbestean, bederatz hilaitez aritzen baita itsasoan deskantsurik gabe. Bizimodu horri buruz hitz egin du *Baleikerekin*, lehorrean hiru hilabete egon ondoren, arrantza denboraldiari berriz ekin aurretik.

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Hemen egunero alda dezakezu ibilbidea. Egun batean joan zaitezke oinez Paolera, eta araztegi aldera, hurrengoan". Duenak ez duenari erreparatzen dion bezala, metro koadro gutxi batzuen barruan lan egiten duenak asko baloratu ohi du espazio zabala. Lehorrean egingo dituen azken egunak kirola egiteko, lagunekin egoteko eta herriaz gozatzeko aprobetxatzen ditu Igor Osa Goikoetxea arrantzaleak, ohi duen moduan. Azaroan amaitu zen harentzat iazko arrantza denboraldia, eta hilabete honetan hasi da aurtengoa. Berdela, sardina eta antxoa harrapatuko dituzte ekainera bitartean, eta hegaluzetara joango dira, ondoren.

Arrantza denboraldiko lehen astea izaten da zailena, Osak dioenez, "gorputza berriz ere martxan jarri arte". Itsasontzi barruko lana gorputzak bezainbeste baldintzatzen du buruak, ordea. Alde horretatik, lasai dago: "Kontzientziatuta joaten naiz itsasora". Ez baitu lehen aldia. Aldian aldiko geldialdiak eta bestelako lanbideak gorabehera, hamabost urte inguru daramatza itsasoan lanean. Familiatik

datorkio itsasoarekiko afizioa: "Familia arrantzale batetik nator. Aita ere hala zen, eta, neurri batean, mundu honetan harengatik sartu nintzen. 12 urterekin joan nintzen lehen aldiz arrantzara itsasontzian, Aste Santu batean. Zorabiatuta itzuli nintzen. Soldadutza egin eta urtebetera, baxuran hasi nintzen Getariako ontzi batean, *Exekielen*". Bi urte egin zituen bertan, eta denbora labur batez bestelako lan batzuk egiten ibili eta gero, zesta puntan jokatzera joan zen Ameriketako Estatu Batuetara. Halako bueltak ematen ditu bizitzak; urrutira, espero gabeko lekura, eramaten dutenak, batzuetan, eta hasitako lekura itzularazten dutenak, besteetan. Garbi baitzuen Osak itsasoan lanean bukatuko zuela noizbait.

Lotura, onerako zein txarrerako

Lehorreko lanean ere ibilitakoa da, baina ez dio neurria inoiz hartu. "Tailerretan-eta aritu izan naiz, baina ez naiz inoiz ohitu", aitortu du. Badu beste zerbait itsasoak harentzat, erakargarri egiten duena: "Bizimodu bat da, eta bizimodu horrek lotzen zaitu. Itsasoarekin eta naturarekin harremanean zaude etengabe". Belaunaldi gazteek ez diote halako erromantizismorik



irrimara



aurkitzen ofizioari, nonbait. Errelebo falta da lanbideak duen arazo nagusietako bat. “Inork ez du nahi itsasora etorri. Etorrtzen direnek urtebete inguru egin ondoren utzi egiten dute. Bizimodu gogorra da itsasokoa, eta gazteek nahiago izaten dituzte bestelako lanak”. Lan askoko hilabeteak izaten dituzte arrantzaleek, eta batere lanik gabekoak, ondoren. Egonkortasuna eta erregulartasuna ez dira ofizioaren ezaugarri nagusiak. Egonkortasun bila dabilenak “ez du itsasoan topatuko”, Osak dioenez: “Lehen topatzen zuten, baina garaiak aldatu egin dira eta bizimoduak ere bai”. Horregatik, etorkinek egiten dituzte bertakoek egin nahi ez dituzten lanak. Tripulazioa osatzeko ezinbestekoak dira.

Gazteen artean erreferentzialtasuna galdu duen ofizioa izanagatik, ez du arriskuan ikusten arrantza Osak. Aldaketak sumatzen ditu hasi zenetik hona; nabarmenenak, lan egiteko moduan. Dioenez, arraina ahalik eta freskoen lehorreratzten saiatzen dira gaur egun, eta, ondorioz, lehen baino denbora gutxiago ematen dute itsasoan: “Garai batean, itsasontzia arrainez bete arte ez ginen itzultzen. 20 egun egin genitzakeen itsasoan. Gaur egun, aldiz, zazpi egunetan lehen harrapatzen genuenaren erdia harrapatzen dugu, eta itzuli egiten gara. Horrela,

arraina freskoago porturatzen da, eta, aldi berean, garestiago. Kalitate oso oneko arraina izaten da gaur egun saltzen dena”. Arrainaren neurrigabeko arrantza mugatzen duten kupoez ere baldintzatzen dute arrantzaleen lana. Lehen baino neurri gehiago dituzte, alde horretatik. Ulerkorra da Osa halako neurriekin: “Ez dut gaizki ikusten, arrainen biomasa mantendu egiten delako horrelako arauekin. Antxoarena adibide ona da: nahi adina balego bezala harrapatu genuen eta batere gabe geratu ginen. Halakoak ez gertatzeko balio dute kupoez”.

Teknologiak ere aldatu du lan egiteko modua. “Makina berriak sartu dira: garabiak, zupagailuak

Igor Osa Goikoetxea

- **Adina:** 42 urte.
- **Ikasketak:** EGB.
- **Lanbidea:** Arrantzalea.
- **Arrantzalea ez banintz...** Puntista, seguruena. Hala ibili nintzen garai batean.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Korrika egitera joan ohi naiz. Orokorrean, kirola egitea.



eta halakoak. Haiek egiten dutena eskuz egiten genuen lehen: arraina hartu, ontzi gainera bota, ondoren kaxetara eta kaxetatik behera; gaur egun, aldiz, tutu bat sartu eta dena zurrupatzen du. Horrela, hozkailuetatik zuzenean kaxetara joaten da arraina”. Kalitatean eragina du, Osak dioenez, “arraina gutxiago ukitzen da eskuekin eta ezkatak ez ditu galtzen”. Tresna berrien erabilerak lana erraztu du, era berean. Aldea hain da nabarmena, “lehen egiten zen lanaren erdia” egiten baitute arrantzaleek, Osaren arabera.

Gogorrena, udara

Sareko arrantzarekin ekin diote denboraldiari arrantzaleek, eta hala ariko dira ekaina erdialdera arte. Orduan hasiko da haientzat lan gogorrena. Denbora gehiago ematen dute itsasoan, eta atsedean hartzeko egun bakarra izaten dute, etxera itzultzean. Irlanda ingurura ere joan ohi ziren lehen, baina azken urteetan arraina “barrura sartu dela eta”, Galiziatik Euskal Herrira arteko itsas zatian aritzen dira. Hain zuzen, Galizian bizi izandakoa du Osak gutxi kontatu dezaketen zerbait. Zenbait lankiderek batera, naufragio bat izan zuen. “Duela 23 urte izan zen. Karnata egitera joan ginen, eta kostaldera hurbildu ginen. Erliebe aldakorra du hango kostaldeak, eta,



patroiak gaizki kalkulatu eta, haitzen bat jo genuen”. Ura sartzen hasi zitzaizen orduan, eta baltsak bota zituzten uretara. Baltsetan egon behar izan zuten, hiru bat orduz, harik eta salbamenduko ontziak iritsi ziren arte.

Ur epelagoetan ere ibilia da atunak harrapatzen. Ozeano Atlantikoan ibilia da, bai Ghana, bai Boli Kosta inguruan, baita Indiako ozeanoan ere, Madagaskarren eta Seychelleen inguruan. Kasu horietan, lau hilabete inguruz egiten zuten lan, sarearekin. Lanerako baldintzak inguru haietan hobek direla onartu du: “Tenperatura goxoak izaten genituen eta egunez egiten genuen lan”. Denbora tarte luzeek eta herriarekiko distantziak herrimina areagotzen dutela onartu du, ordea: “Bizimodua hobea da, baina denbora asko da etxetik kanpo. Inguruak ezagutzeko denbora izaten genuen, behintzat”.

Atun garaikoak dira, momentuz, etxetik kanpo ematen dituen denbora tarte luzeenak. Udan izango da hori. Aurretik, sareko lanari lotu beharko zaio. Luzera begirako asmoz ez da epe laburreko bezain seguru mintzo, baina gauzak askorik aldatu ezean, itsasoari loturik ikusten du etorkizuna. “Ez dakit zer pasako den, baina itsasoan jarraitzeko asmoa dut; ez daukat besterik buruan”, dio, determinazioz. ■■■

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Itzurun taberna: Luis Mari Osa



Zelai talasoterapia: Arantza Ostolaza



On Gourmet: Jon Imaz

MARTXOAK 11

Ekin elektrizitatea:
Explorer action
camera bat.

MARTXOAK 18

Onuraren fisioterapia
saioa.

MARTXOAK 25

On Gourmeten
asteko menua.

APIRILAK 1

Ongizanen
fisioterapia saioa.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hileroko.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba


E-maillez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45

Ba dok hamahiru!



Hau desastrea, autobus honetan! Horra zer ikusten duen autobus-gidariak ispilutik... Begiratzen duen bakoitzean, gainera, aldaketaren bat gertatzen da. Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.



SIRENA

Osa ezazu sudokua, SIRENA hitzak dituen hizkiak erabiliz (S, I, R, E, N eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zer arraio egiten ote dute bi izar horiek nire bularretan...



Mezu ezkutua

Jar ezazu ikonotxo bakoitzaren azpian, hari dagokion hizkia. SIRENA esateko beste bi hitz osatuko dituzu.



Estropezua

Ui ene. Gizajo honek estropezu egin du triku batekin. Zein ote da bere itzal zuzena?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA

garay
manufacture

1989tik sukalde atzariatzen lanean

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olabidea aldea 1 (Errotaberi Industrialea)
20.800, **ZARAUZ 943 13 31 09**

BERTAKO DISEINU ETA EKOIZPENA



www.garay.eus



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943-86 20 73
943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com



RPS 18/16

EGOKI

Eroju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



ekin
ZUMAIKO, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekin.com www.ekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



**ERNTO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponkerak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia



Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garoa

Carlos Cintero · Ainhoa Olaizola

tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



**goiko
bodegaia**

Erribera, 9 · 943-86 13 91



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

DOIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Bideo jokoen arriskuak I



MAVI CARCELLER
SENDAGILEA

Gizarte osoan, eta batez ere gurasoen, sanitarioen eta hezitzaileen artean, kezka bat eragotu egin da: nola erabiltzen dituzten adin txikikoek teknologia berriak. Ematen du mundua azkarregi aldatzen ari dela, eta nahiz eta Internetek eta sakelako telefonoek abantaila asko ekartzen dituzten ondo erabiltzen direnean, arazo serio bihur daiteke behar bezala erabiltzen ez badira.

Kale eta parkeetan neska-mutilen taldeak bakoitza bere telefono mugikorrarekin ikusten ditugu, euren artean hitz egin gabe, jolas tradizionaletan jolastu beharrean, eta horrek kezka eragiten digu.

Etxe askotan gatazkak sortzen dira mugikorrak, tabletak eta kontsolak gehiegi eta gaizki erabiltzeagatik. Gainera, gure neska-mutilak beraien artean jolasten eta erlazionatzen dira era birtualean, bakoitza bere etxean, kontsola edo telefonoarekin, “online” jolasten. Horrela, askoz ere zailagoa da -ia ezinezkoa- arauak eta mugak jartzea, taldeko guraso guztiak ados egon behar dugulako.

Osasunaren Mundu Erakundeak, bere azken Nazioarteko Gaixotasunen Sailkapenean (CIE11) gaitz berri bat sartu zuen, “mendekotasun bidezko jokaeren ondoriozko

arazoak” epigrafean, “digital-gaming disorder” edo “video-gaming disorder” izenekoa alegia, bideo jokoen nahasmendua; hau da, bideo jokoen adikzioa gaixotasun bat da.

Trastorno hau diagnostikatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Jokabidea ez kontrolatzea, zenbait alderdiri dagokienez: hastapena, maiztasuna, intentsitatea, iraupena, amaiera eta jokatzeko testuingurua.
- Bideo jokoei ematen zaie lehentasuna beste bizi interesen eta eguneroko jardueren aurrean.
- Ondorio negatiboen kontzientzia izan arren, jokabidea mantentzea eta areagotzea.

Gaixotasuna edo desoreka sortzen da jokabidea larria denean, batez ere egunerokoan (maila pertsonalean, sozialean, familian, eskolan, lanean...) eragin nabarmena duenean

OMEren arabera, bideo jokoetan jokatzaren duten pertsona gehienek ez dute inolako trastornorik izaten, baina pentsatzen du ohartarazi behar zaiela jokalariei zer arrisku dauden desegoki erabiliz gero, bereziki umeen eta nerabeen kasuan, zaurgarriagoak, babesgabeak direlako.

Haurrak dira ahulenak, beren garuna erabat garatuta ez dagoelako. Izan ere, arrazionalizazioa, planifikazioa

eta erabakiak hartzeko aldea ez dago guztiz garatuta nerabezaroaren ondorena heldu arte. ■■■

Zumaian, DBH ikasleei inkesta bat egin zieten adikzioei buruz.

Bideo jokoen inguruko emaitza batzuk hauek dira:

DBH1en (12 eta 13 urte bitarteko neska-mutilak)

Mutilek

- % 64k telefono mugikorrak egunero erabiltzen dituzte.
- 1 ordu egunean % 34; 2 ordu % 46; 3 ordu % 4; 4 ordu % 8; **7 ordu baino gehiago egunean % 8.**
- **Mutilen % 23k egunero jokatzaren dute bideo jokoetan.**

Neskek

- % 75ek telefono mugikorrak egunero erabiltzen dituzte.
- 1 ordu egunean % 52; 2 ordu % 18; 3 ordu % 22; 4 ordu % 4; **7 ordu baino gehiago egunean % 4.**
- **Nesken % 0k egunero jokatzaren dute bideojokoetan.**
- **Nesken % 36k ez dute inoiz jokatu bideojokoetan.**

PUBLIZITATEA



Iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia, tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia, tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hotz eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



943-86 20 83

ORRAZTEGI
ZUMAI

KABI TABERNA

Petxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943-86 04 84



malaur

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Ballasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Uroia plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943-86 16 91



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



**OSA
BERNIZATUAK**

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 - tel. 943-86 14 12 - 686 36 41 49

Jazarpenaren bide ezkutua

ZIBERBULLYINGA



IZAR ARREGI

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Aurreko batean horrela azaldu nuen noiz gauden bullying kasu baten aurrean: "Menperatze harreman bat gertatzen denean, eta norbait gutxiesteko eta zanpatzeko joera hartzen denean, botere maila berean ez dagoelako. Norbait lotsatia delako, ezaugarri bereizgarriren bat duelako... Edozein izan daiteke aitzakia. Egoera hori etengabea bada eta denboran luzatzen bada, orduan bullying egoera baten aurrean gaude". Bullyingak, baina, gaur egun badu bertsio modernoagoa: ziberbullyinga.

Muinean, arazo berberaren aurrean gaude, baina kaltea egiteko modua eta bideak aldatu egiten dira. Teknologia eta gailu berriek aukera ederrez betetako mundu berri bat ekarri digute, baina, nola ez, jarrera okerrentzat ere eremu berri bat sortu da. Teknologia berri hauen bidez gauzatzen den bullyingari deitzen diogu ziberbullyinga. Eta baditu arrikutsuago, mingarriago eta konpontzen zailago egiten duten zenbait ezaugarri.

Anonimotasuna da ziberbullyingaren ezaugarrietako bat. Kaleko edo ikasgelako bullying egoera batean, erasotzak badaki nor den erasotzailea. Badaki nork egiten dion burla goizero, nork ematen dizkion ostikadak

bidean topatzen duen aldiro. Ziberbullying kasuetan, gehienetan anonimotasunetik egiten da eraso. Instagram, Facebook edo beste edozein sare sozialetako perfil faltsuak erabiltzen dituzte min egiteko. Eta horrelakoetan oso zaila da jakitea erasotzailea nor den, erasotzaile taldean nork zer paper jokatzeko duen, ikusle pasiboan multzoa nork osatzen duen... Izan ere, ikusle pasiboan multzoak ez dauka, berez, mugarik, sare sozial osoa izan daiteke. Eta gogoratu bullyingaren kasuan esaten genuena: ikusle pasiboak giltzarri izan daitezke egoerari buelta emateko estrategia bat antolatzerakoan. Baina ziberbullyingaren kasuan, norengana jo?

Giza harremanetan oso inportantea da arazoak konpontzeko aukera eta ahalmena izatea, baina, zoritxarrez, ziberbullyingaren ondorio batzuek ez dute konponbiderik. Bullying kasuetan lor daiteke; erasotzailea eta konplize isilak identifikatuz gero, posible da estrategia bat lantzea arazoa

**ZIBERBULLYING KASU
GEHIENETAN
ANONIMOTASUNETIK
EGITEN DA ERASO**

bideratzeko. Eta behin erasoak amaitu direnean, kito. Ziberbullyingean, berriz, burla, gezur, mehatxu edo argazki hori ezin da konpondu, atzera egitea ia ezinezkoa da, erasotzaileak berak ere mezuaren kontrola galtzen duelako. Sare sozialetan nahikoa da txinparta bat sua piztu eta bazter guztietara zabaltzeko. Zenbait kasutan sare soziala bera erabil daiteke kaltea zuzentzeko, baina oso zaila da. .

Badu ziberbullyingak beste ezaugarri bat, oraindik ere ankerrago eta arrikutsuago bihurtzen duena. Normalean ez du begi bistako ubeldurarik uzten, bakardadean sufritzen da. Haur horrek dozenaka mehatxu eta irain jaso ditzake sare sozialen bidez, eta gurasoak ez dira ohartu ere egingo. Erne, erasotzailearen jarrera aldatu egiten da eta: antsietatea agertzen da, anorexia eta antzeko gaixotasun berriak, isolamendua... Eskolaz aldatzea ez da soluzioa, jazarpenak ziberespazioan jarraituko du eta.

Teknologia berriak gure gaitasunaren aurretik doaz, asko daukagu oraindik ikasteko. Ziberbullyinga konponbide zailako arazo larria da gaur egun, eta denon artean jakin beharko dugu aurre egiten. Bitartean, babes neurriak har ditzakegu eta gure haurrei erakutsi sare sozialetan zuhur jokatzeko. ■■■

Geoparkeko barnealdeko hezeguneak. Edanleku soilak baino gehiago

Kostaldekoek hezegune hurbilenak padurak ditugu, baina barnealdean ere badaude mimoz zaindu beharreko bustiguneak. Horregatik, otsailaren hasieran ospatu ohi den Hezeguneen Munduko Egunaren harira, mendira begira jarri da Geoparkea, eta barnealdeko putzuak ezagutarazteko hainbat ekimen abiatu du.

Testua eta argazkiak:

Gonzalo Torre.

Intuzioari kasu eginez gerturatuko gara, baina ez da erraza hezegune bat zer den definitzea. Umorez, batzuek diote oinak bustitzeko bai, baino bainua hartzeko adina urik ez duen tokia dela; halere, badaude urik ageri ohi ez duten hezeguneak. Argibide gehiago eman nahian, besteek esango dute hezeguneetan uretan zopatura ondo moldatzen diren landareak daudela, baina landareak agerian ez dituzten hezeguneak ere badira. Amaitzeko, egongo da defendatuko duena hezeguneak lurra eta uraren arteko iragate eremuak direla, baina muga horietatik urrun kokatutako hezeguneak existitzen dira.

Beraz, har dezagun definizio bakoitzetik pittin bat, eta esfortzu handirik gabe irudikatuko dugu hezegune bat nolakoa den. Izan ere, hezeguneak urak baldintzatutako sakonera txikiko eremuak izan ohi dira, sarritan lehorreko eta uretako inguruetak mugetan daudenak, eta eremu horietara ondo egokitutako landareen eta animalien bizileku direnak. Hori izan daiteke, bada, nahiko hurbil dagoen deskribapena.

Definizioez gain, ekologiaren ikuspuntutik ingurune hezeak leku aberatsak dira. Aipatu bezala, eremuotako bizidunek moldaerak dituzte bertako baldintzei aurre egiteko, eta, horregatik, biodibertsitate bereziko inguruak dira. Bestalde, uraren zikloan erregulatzeko funtzioak dituzte, tokiko kliman eragina izaten dute, paisaiari aniztasuna ematen diote eta materialak sedimentatzeko tokia izaten dira, besteak beste.

Ingurune babestuak

Ezinbesteko funtzio ekologiko horiek eta bertako flora zein faunaren garrantzia aitortzeko, hezeguneak kontserbatzeko nazioarteko



Aranzadi zientzia elkartekoen azalpenei adi.



Artutzango putzua.



Uhandre palmatua. EGOITZ ALKORTA



Urritzuko putzua.

hainbat hitzarmen daude, ezagunena 1971n Irango Ramsar izeneko hirian sinatutakoa. Hasieran hegaztiak babesteko zena, denbora aurrera egin ahala hitzarmen hura ekosistema hezeen balioa azpimarratzeko erreminta da gaur egun, eta mundu mailan garrantzitsuak direnak Ramsarko listan daude. Halako zortzi Euskal Herrian: Viana, Pitillas eta Guardiako urmaelak; Urdaibai eta Txingudiko padurak; Uribarri-Ganboa urtegiko Mendixur aldea; Añanako Gatzaga-Arreo-Caicedo Yusoko multzoa; eta Salburua.

Hala eta guztiz ere, Euskal Herrian garrantzizko beste hezegune asko ere badago, esaterako kostaldeko padurak, mendiko zohikaztegiak (gaztelaniazko turberak) eta modu naturalean sortutako laku, aintzira edota ur putzuak; baita ere jatorri artifiziala dutenak, adibidez, urtegiak edo meatze ustiaketatako zein ureztatzeko baltsak.

Geoparkeko mendiko hezeguneak

Deba eta Urola ibaietako padurez gain, Geoparkeak hezegune asko ditu mendian sakabanatuta. Horrelako batzuk, Laranga, Larrazkanda, Ormola edo Uzgangakoak kasu, Hezeguneen Lurralde

PUBLIZITATEA



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaiz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beabide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalauteskolak.com

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
Jatetxea

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kadilloa)
Soltxitxak, oilskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko -Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xanti
ALTZARIAK

Amaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com



BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia



Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

BALEIKEK
25 Urte

zatoz gurekin ospatzera

Plan Sektorialak babestuta daude; beste batzuek, aldiz, garrantzi bera badute ere, ez daude lurraldea antolatzeke arauetan –eta ez da espero egotea–; besteak beste, Artutzangoa, Urritzukoa edo Etxaizkoak, hirurak ere Itziarko hirigunetik gertu daudenak.

Bistan denez, zerrenda horren mendiko putzu ugari jatorri karstikoko eremuan daude, eta bat edo beste gizakiak egindakoa bada ere, gehienak paisaia karstikoa modelatzen duten prozesu geomorfologikoen ondorioak dira: urak kareharria disolbatzeke gaitasuna du, eta arrakala, zulo eta haustura franko eragiten ditu. Zuloetan buztina metatzen denean, hondoa iragazgaitza bihurtzen da, ura pilatu egiten da, eta baltsa edo putzuak sortzen dira.

Hezeguneetako bizidunei dagokienez, esan behar da horiek putzuaren itxuraz guztiz baldintzatuta daudela. Izan ere, sakonera txikikoak baina ertzak aldapa handikoak direnean, ur dilistak, urrebotoiak eta antzeko urretako landareak dira nagusi; aldiz, sakonera handiagoa eta ertz leunagoak dituzten urmaeletan, lezkak eta ihiak nabarmentzen dira. Bi mota horien artean adibide asko dago, jakina. Gainera, mendian klimaren baldintzak gogorrak dira, eta, horrenbestez, altitudeak ere eragin zuzena du inguru hezeen biodibertsitatean.

Animaliei dagokienez, ornogabe txiki askok (intsektuak, krustazeoak zizareak...) hezeguneetan topatzen dute aterpea, eta beste batzuentzat funtsezko elikagaiak dira. Harrapakari horietatik aipagarrienak anfibioak dira, halaberharrez, ugaltzeko ur masa hauen menpe dauden animaliak. Arrabio arrunta, uhandre palmatu eta marmolairia, txantxiku arrunta, baso igel gorria, ur igel arrunta eta apo arrunta dira Geoparkeko mendiko istilei lotutako anfibioak.

Berreskuratu beharreko ekosistemak

Orain arte gizakien eta hezeguneen arteko harremana argi-ilunez betetako erlazioa izan da. Maiz, hezeguneak ustiatu egin dira elikagaiak lortzeko, baina beste askotan lehortu eta suntsitu ere izan dira, izurrite fokua zirelakoan. Nekazaritzarako lurrak zabaltzeko, ura hartzeko edota urbanizazioak egiteko, azken 50 urteotan munduko hezeguneen % 35 galdu egin da; eta biziraun dutenak, ongarrri edo pestizidak kutsatuta edo espezie exotikoez josita daude nahi baino gehiagotan.

Baina, azken urteotan, naturagune hauen garrantziaz jabetuta, asko dira mendiko putzuak lehengoratzeko egin diren lanak. Are gehiago, hainbat tokitan hezegune berriak eraiki dira, batzuetan auzolanean. Edozein kasutan, lortutako emaitzak itxaropentsuak dira, gehienetan, esku hartzeen ondoren ingurunearen bilakaera azkarra eta egokia izaten baita.

Hezeguneen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatutako txangoan leku hauek sortzen duten interesa eta jakin-mina agerian geratu dira, eta bertako bizidunak ezagutzeak liluratuta utzi ditu irteeran parte hartu duten ume zein helduak. Denok ikasi dugu mendiko hezeguneak ganaduak edateko bide bazterreko putzuak baino zerbait gehiago direla.

Hortaz, jarrai dezagun elkarlanean hezeguneek Geoparkeko paisaian duten berebiziko garrantzia etorkizunean ere eduki dezaten. ■■■



Pyrrhosoma nymphula. IÑAKI MEZQUITA

**IBAIETAKO PADUREZ
GAIN, GEOPARKEAK
HEZEGUNE ASKO DITU
MENDIAN
SAKABANATUTA**

**HAINBAT TOKITAN
HEZEGUNE BERRIAK
ERAIKI DIRA,
BATZUETAN
AUZOLANEAN**

Luis Mari Aizpurua, kronikak baino gehiago



TESTUA: IMANOL AZKUE

Beste askorentzat bezala, niretzat ere Luis Mari korrespontsala izan da beti, horrelaxe ezagutu genuelako, Zumaiaren eta zumaiarren berri ematen egunkarietan eta irratian. Baina gaurkoan beste garai batzuetako kontuak azaltzeko eskatu diogu, baita gonbidapena onartu ere.

Luis Mari Aizpurua Apestegei 1938an jaio zen, Zumaian, San Telmo kalean. Simon eta Teodoraren semea, bost anaietan erdikoia. Aita fundizioan ibili zen, moldeadore, Zumarragan eta Eibarren, eta laneko azken urteetan Fundiciones Apestequin, enkargatu; ama, berriz, karakter handikoa zen eta etxeko martxa guztia bere gain hartu zuen. Bere belaunaldiko gehienak bezala, txikitan herriko eskolan ibili zen, Arrangoletan: “Plastada ederrak jasotakoak gara, euskaraz egiteagatik!”, dio, eta beste zerbait ere gehitu du: “Meritua bai gurea, eduki genuen pertsekuzioarekin, ez genuelako galdu euskara”; klase barruan den-dena erdaraz egiten zuten, baina kalean euskaraz, beti. Zumaiaetik Arantzazura joan zen ikastera, 12-14 urte artean, musika zaletasun handia zeukalako eta

idaztea ere asko gustatzen zitzaiolako, eta han ere gaztelaniaz ikasi zuen, “Verbo vasco” izeneko asignatura kenduta.

Gerraondorena bete-betean bizi izan zuten, eta galdetu diot ea goserik pasa zuten: “Bai galanta!”, eta errazionamendua ere ezagutu omen zuten. “Ogi koskor batekin, egun osorako, ez orain bezala! Jango bai, gogo galantarekin, baina...”. Umetan, jolasean, San Telmo kalekoak karkaban ibiltzen ziren, Balenziagaren atzealdean (gaur egungo Ondartxo plazan). “Izkiñatarrek tailerra zeukaten, eta han gasolio deposituak-eta zeuden; hantxe ibiltzen ginen, barrura sartuta, arrisku handirik ikusi gabe... Zikin-zikin egin, etxera joan, paliza hartu eta berriz ere kalera! Saltaka ibiltzen ginen asko, hantxe bueltaka”. Aitak baratzea zeukan Larretxo aldean, Elorriagari alokatuta, baina ez zuen nahi izaten han semeek laguntzea, bakarrik aritzen zen: “Gure lana izaten zen pare bat baldekada ur eramatea kaleko iturritik; gero, libre”.

Garai hartan Elizak indar handia zeukan. “Jaiero meza nagusitara, eta arratsaldean bezperetara, bestela ez zegoen pagarik! Elizako sarrerako

parean bizi ginen, eta etxetik zaintzen gintuen amak”. Behartuta joaten ziren galdetu diot: “Derrigortuta zen, eta derrigortuta egiten dena, ez da samurra izaten; orain ondorena pagatzen ari dira”.

Maria Frantziska Txapartegirekin hasi zen irtetzen, 20 urterekin, eta bost urtera ezkondu egin ziren. Sanjuaniturri parean jarri ziren bizitzen, eta gero aldatu ziren Poligonora. Hiru seme-alaba hazi zituzten, eta gero etorri ziren zazpi bilobak. Maria Frantziskak denda jarri zuen etxetik hurre, eta oraindik ere eusten diote familian negozioari.

Luis Mariri txikitatik gustatu izan zaio idaztea, eta denbora luzez aritu da kronista: hogeita bat urterekin hasi eta berrogeita hamazazpi bete arte, herrian gertatutakoen berri ematen. “Periodiko denak pasatu nituen!”, dio, eta arrazoia dauka: *La Voz de España* (1960an Paoleko istripuaren berri ematea tokatu zitzaion), *Egin, Deia, La Voz de Euskadi* eta *El Diario Vascon*; azken horretan 13 urte egin zituen, eta herriko berriak emateaz gain, 20 orrialdeko gehigarria ere egiten zuen santelmoetan, laguntzaile onekin. Cadena SERen ere hamabost urte egin

zituen, astean hirutan Zumaiako, Getariako eta Zarauzko berriak ematen, eta igandeetan euskaraz, Jose Ramon Belokirekin. Luis Marik ondo ezagutu du kazetaritzan izandako bilakaera: “Lehen, atzo idazten zen, gaur eraman eta bihar argitaratu, eta argazkiak errekadista bidez bidali. Periodikora bisitan joandako batean, harrিতuta geratu nintzen, han nola egiten zuten konposizioa: letrak pintzekin hartu, banan-banan jartzen... Orain berriz...”, dio, lehengo garaia gogoan. Afizioa zeukan idazteko, baina erraztasunak ere izan zituen: “Bankuan egiten nuen lan, eta arratsaldeak jai neuzkan”. Bankuan lanean hasi aurretik, Arantzazutik etorri zenean, alemanenean (Oto Holken) ibili zen, tornulari, eta arratsaldeetan profesionalera joaten zen, ikastera; gero Lagun Artean ere ibili zen, eta orduan komentatu zioten bankuko aukera, 1976an; Madrilera joan, azterketa gainditu eta bankuan aritu zen lanean, 55 urterekin jubilatzen arte.

Baina inguruko gertaeren eta ekitaldien berri emateaz gain, horiek antolatzea eta parte hartzea ere gustatu izan zaio, eta hainbat talde eta elkartetan aritua da: luistarretan diruzain (“Hilero lauhun errezibo egin behar izaten nituen, banan-banan!”), Oarguiko presidentea, atletismoko klubean, Zumaiako Herri Batzokian, Hogarreko juntan... Ekitaldi ugari antolatu zituzten, baina bereziki gogoan dauzka hiru: Santaeskean atera zirenekoa; Beobideri egindako omenaldia (1968an) eta Aita Mari elkarteko danborrada berezia. “Beobideren



Julio Beobide Parrokirako bidean, 1968-04-28an, Oarguik antolatutako omenaldi egunean. LUIS MARI AIZPURUA



Txaranga Txikito Artadiren aurrealdean, Juanin Sanchez zuzendari. LUIS MARI AIZPURUA



Atletismoko taldea Arranplan, 1958an. Goian, ezkerretik eskuinera, Jesus Mari Aizpurua, Jose Antonio Egaña eta Joseba Sasiain; makurtuta, Luis Mari Aizpurua eta Pedro Balenziaga.



Badator Aita Mari elkarteko danborrada!



Hogarreko taldea. Zutik, ezkerretik eskuinera: Tere Ostolaza, Miren Laskibar eta Eduarne Egino; makurtuta, Alberto Uranga, Luis Mari Aizpurua, Manuel Esnal (lehendakaria), Luis Azkue, Alberto Esnal eta Jose Ramon Zubia.

omenaldia biribila izan zen, oso hunkigarria, eta handik urte eta erdira hil zen; garaiz ibili ginen...”; ondo gogoan dauka programa: meza nagusia, Aita Mari zinemako erakusketa, bazkaria (250 lagun Etxabe Kuarton eta Hotel Zumayan banatuta)... ; akordatzen da, baita ere, Juliok jarri zuen baldintzarekin: “Aurrealdean ez zuen nahi autoritaterik, herriak parte hartzea eta protagonista izatea nahi zuen”. Danborradari dagokionez, “Kaskagortuta antolatu genuen, elkarteak inauguratzeko; hasieran danborrero izan behar nuen, baina Angelito *Goiko* zuzendariak istripua izan zuen, eta baten bat behar, eta ‘Hik badakik musika pixka bat...’ eta Luis Mari zuzendari...”; arrakasta handia izan zuen, eta bereziki gogoan dauka Beheko plazan sartzen, Aupa gizona jotzen, jendearen txalo artean.

Abestea izan da Luis Mariren afizioetako bat: “Oso ahots ona neukan. Txikitan tiple edo bakarleri izan nintzen Arantzazun, irratian ere kantatu nuen”. Parrokiako eta Hogarreko koroetan aritua da, eta Gabon Koruan ere bai; baita Bazkalondo koruarekin ere: “Parrandarako taldea zen. Ematen zigutena ez genuen banatzen, ‘jan’ egiten genuen, beste ospakizun batean,

ambiente ederrean”; Truebaren salbea lau aldiz kantatu du bakarlari; “Orduan bai ahotsa...”, dio...

Beste afizioetako bat argazkilaritza izan du, eta galdetu diot nondik datorkion zaletasuna: “Jesus anaia hasi zen ikasten, eta ni harekin; gero, hark utzi eta nik jarraitu nuen; ondo etortzen zitzaidan kroniketarako”. Dena berak egiten zuen: argazkiak atera, errebelatu, anpliatu... Bodak ere egiten zituen. Beraz, idatziz bakarrik ez, irudi bidez ere ederki jaso zuen Luis Marik orduko Zumaiako egunerokoa, ehunka argazkitan, eta ganbaran dauzka jasota. Kontziente da gordeta daukan altxorraz: “Hiltzen naizenean, azkar ibili, bestela denak derrepente botako dituzte-eta basuretara”, dio barrez.

Laurogeiak beteta, lehengo afizioei eusten ahalegintzen da, baina beste erritmo batean, lasaiago. Ordenadorearekin asko entretenitzen da, eta irakurtzea ere gustatzen zaio.

Gaurkoan besteena ez, berearen berri ematea egokitu zaio, atal honen protagonista izatea, eta hizketan hasita, erakutsi dugu badaukala zer kontatua. Gustura egin dugu kronika. ■■■



Zahagi dantza, Errotakoaren parean. Bestak beste, ezkerretik eskuinera: Migel Manterola, Sebastian Irigoien, Luis Manterola, Agustin Txapartegi, Victoriano Urkidi, Jose Luis Elosua, Dionisio Sanchez eta Joakin Urkidi. LUIS MARI AIZPURUA



Santelmoetako prozesioa, 1967an. Ezkerretik eskuinera, besteak beste: Acisclo Alberdi, Ramon Maria Olaizola, Javier Iraundegi, Jose Mari Oliden, Jesus Egaña, Simon Elosua, Jose Mari Ostolaza, Joaquin Manterola, Valentin Alberdi, Juan Jose Zinkunegi eta Jose Leonet. LUIS MARI AIZPURUA

KULTURA

Trikitixa giro onean

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Euskararen Eguneko ekitaldi nagusian edo Gure Esku Dagok antolatutako festa giroko jardunaldi batean; Mugimendu Feministak Martxoaren 8aren harira deitutako martxa batean, edo Ermitako jaistean, San Telmo jaien hasieran. Han izango dira Zutrik taldeko neska-mutilak, emakumeak eta gizonezkoak, trikitixa eta panderoak eskuetan, kalea musikarekin girotzen.

Arantxa Urkidi, Ana Delia Mendizabal eta Arri Osa bildu ditugu mahai baten bueltan taldearen berri izateko. Musika Eskolako ikasle bezala hasi zuten denborarekin Zutrik bihurtuko zen taldea. “Musika betidanik gustatu zait. Alaba panderoa ikasten hasi zen, eta haren klasera joaten nintzenez, kristoren inbidia pasatzen nuen. Ni ere panderoa ikasten hasi nintzen; hura ikasi nuenean, trikitixarekin hasi nintzen”, dio Arantxak. Arrik eta Ana Deliak lehenagotik izan zuten panderoarekin harremana. “Ikastolan irakasle ginela, panderoa ikasteko gogoia sortu zitzaigun. Musika Eskolara joan ginenean, eta itxaron zerrendan jarri gintuzten. Trikitixa ikasteko aukera zegoen, eta probatu egin nuen. Harekin urte batzuk egin nituen, baina gero utzi egin nuen. Arantxa hasi zenez, berriro joan nintzen Musika Eskolara panderoa ikastera, eta itxaron zerrendan egon



Zutrik taldeko kideak, kalejira bateko atsedenaldian. ZUTRIK

ondoren, Xabi Solanok deitu zidan. Hor Arriz akordatu nintzen”, dio Ana Deliak.

Klasean ikasitakoa jendaurrean erakustea izaten da hurrengo pausoa. “Ni neu lehen aldiz kalera atera nintzela 8 urte izango dira”, du gogoan Ana Deliak. “Euskararen Eguneko larunbat bat zen, eta gu hirurok atera ginen Xabi Solanorekin”, dio jarraian. Denbora gutxira Lorea Mendiola gehitu zitzaizen. “Hasiera hartan gu laurok ibili ginen: Ana Delia eta ni soinuarekin, eta Arri eta Lorea panderoarekin. Gero, pixkanaka, jende gehiago elkartu zitzaigun”, dio Arantxak. “Trikitixa ikasten ari ziren gazte batzuk ere elkartu dira denborarekin”, azaldu du Arrik.

Gaur egun 15-18 lagun inguruk osatzen dute Zutrik. “Hainbeste jende gara, Musika Eskolan erabiltzen dugun gela handitu behar izan dute; erdiko manpara bota dute”, diote

irribarretsu. Astero joaten dira Ubillosera, Esne Beltzako buru den Xabi Solanoren klaseetara. “Oso irakasle ona da, baita pertsona ona ere”, dio Arantxak. “Trikitixa jardunaldi batzuetara ere eraman gaitu”, gaineratu du Arrik. Oraindik ez dute lortu Solano beraren pieza bat taldearen erreperitorioan sartzea. “Beste toki batzuetara joan izan garenean esan digute erreperitorio kontserbadorea dugula. Beste talde batzuk Esne Beltzaren kantak jotzen dituzte, baina guri ez digu erakutsi nahi. Oraindik ikasteko asko dugula dio”. Hori bai, Kortaturen *Sarri, Sarri*, edota La Polla Recordsen *No somos nada* bezalako himnoak jotzen dituzte.

Orain bi urte Zutrik izenarekin legeztatu zuten taldea. “Musika Eskolako talde bezala ezin genuen dirurik jaso; orain, Zutrik bezala, bai. Baina, elkarrekin ondo pasatzen dugulako jotzen dugu. Besterik ez”, diote. ■■■

AGENDA

ERAKUSKETAK

MARTXOA 25-APIRILA 7

Darahli.

MARTXOA

6 ASTEAZKENA

Ipuin kontaketa: *Rol jokoa*, Apikaren eskutik (5+ urte).
Haur liburutegian, 17:30ean.

Hitzaldia: *Euskaraldia, euskaltzaleak saretzeko bidean*, Arrate Illaro.
Oxford aretoan, 18:30ean.

9 LARUNBATA

Kontzertua: Hernaniko Kantuz abesbatza.
Komentuan, 19:00etan.

13 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Etorkizuneko Zumaia nola garatuko dugu euskaraz?* Ibon Manterola.
Oxford aretoan, 18:30ean.

Meditazio saioa: Gune elkartearen eskutik.
Forondan, 19:30ean.

15 OSTIRALA

Antzerkia: *Tomiris*, Atx teatroa.
Oxford aretoan, 22:00etan.

16 LARUNBATA

Kontzertua: ZUMB Musika bandaren eskutik, *A symphony of fables*.
Oxford aretoan, 19:00etan.

21 OSTEGUNA

Zine forum: *Tres caras*. Zuz.: Jafar Panahi.
Aita Marin, 22:00etan.

27 ASTEAZKENA

Solasaldia: Gune elkartearen eskutik, *Erlijjorik gabeko espiritueltasunerantz*. Joxe Arregi.
Forondan, 19:30ean.

28 OSTEGUNA

Musika Eskolaren jaialdia.
Oikian, 18:00etan.

HILABETE MOREA

7 OSTEGUNA

Zine forum: *Viaje al cuarto de una madre*. Zuz.: Celia Rico Clavellino.
Aita Marin, 22:00etan.

12 ASTEARTEA

Aurkezpena: Zumaiaiko Emakumeon Etxea elkartearena. Kolaboratzailea: Esti Curiel.
18:30ean.

14 OSTEGUNA

Zinegoak film jaialdia.
Aita Marin, 22:00etan.



22 OSTIRALA

Antzerkia eskolentzat: *Käffka*.
Aita Marin, 11:30ean.

Antzerkia: *Käffka*, Kamikaz kolektiboa + Gehitu elkarteak.
Aita Marin, 22:00etan.


26 ASTEARTEA

Ikastaroa: Pepa Bojorena. Gaztelaniaz.
Jabetza eskolaren baitan, 18:30ean.

28 OSTEGUNA

Zinegoak film jaialdia.
Aita Marin, 22:00etan.

Izugarrikeria baten memoria



XALA

Egilea: Cynthia Ozick
Argitaratzailea: Pasazaite
Argitaratze urtea: 2017
Orrialdeak: 64
Generoa: Narratiba



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

1928. urtean New Yorken sortua, Cynthia Ozick XX. mendearen bigarren erdiko kontalari amerikar nagusietako bat da askoren ustez.

Bere gaztaroa Bronxeke kaleetan igaro zuen eta sarri aipatu izan du idazleak berak bere bizitzako garai zorionsuenak izan zirela, harik eta kontzientzia hartzen hasi zen arte, bere jatorriaren kontzientzia.

Bere gurasoak Errusia “zuriko” judu etorkinak izanik, sasoi hartan European egon izan balitz bere patua zein izango ote zen galderak asaldatzen zuen, eta are gehiago liburu batean irakurritako pasarte batek bere barrua goitik behera astindu zuenetik: kontzentrazio esparru batean elektrifikatutako hesi baten aurka jaurtitako haurraren irudia iltzatuta geratu zitzaion betirako.

Holokaustoaren gaia maiz azaltzen da Cynthia Ozicken lanetan, eta izugarrikeria hori adierazteko literaturako formula erabilienetako bat ama-alaben arteko bortxazko banaketa izan ohi da, lotura primario horren apurketak jendetasunaren mugetara, horrearen esparrura eramaten baitu irakurlea, eta hala, lehen aipatutako pasarte oinarri hartuta, gai hori jorratu du idazle amerikarrak gaur proposatzen dugun *Xala* liburuan.

Gaurko proposamena bi kontakizun labur dira. Lehena,

**HOLOKAUSTOAREN
 IZUGARRIKERIA
 ADIERAZTEKO
 FORMULA AMA-
 ALABEN BORTXAZKO
 BANAKETA IZAN OHI DA**

liburuari izenburua ematen dion *Xala* kontakizun guztiz laburra, *The New Yorker* aldizkarian 1980ko maiatzaren 26an argitaratua; bertan, preso judu batzuen hiru eguneko martxa kontatzen da, negu gorrian, heriotza esparru batera doazela; haien artean doa Rosa, haren iloba Stella eta xal batean bilduta daraman bere umetxoa, Magda, soldadu nazientzat ikusezina.

Bigarren kontakizuna, aldiz, *Rosa*, 1983an argitaratu zen, eta Rosak (bizirik atera baitzen heriotza esparrutik) Miamin egiten duen bizimodua agertzen du, gerra bukatu zenetik hainbat urte igarota. Gordea dauka oraindik xala, bere alabaren heriotzaren kontrako talismana balitz bezala.

Bi kontakizunak elkarrekin argitaratu ditu Pasazaitek, 1989ko edizioan kaleratu ziren modu berean. ■

Tabernak, a zer lekuak...



KEPA AIZPURUA

Arctic Monkeysen melodiek giroa berotzen dute, eta barraren inguruan eztabaida sakon batean murgilduta gaude: zebra zuriak dira marra beltzekin edo beltzak marra zuriekin? M.k komentario surrealista bat erortzen utzi du, B. algaraka hasi da, eta, bitartean, K.ri begiak piztu zaizkio. Zerbeza arraro bati tragoxka eman, eta halaxe bota dit: “Anima hadi tabernak eta kultura gaitzat hartuta *Baleikerako* lerro batzuk idazten; materiala badaukak!”.

Tabernak eta kultura: afizioa bai bietarako, betidanik; ofizioa ere bai, bat; aditua ezertan ez. Herrien taupada eta arima diren tenplu txiki hauek aldarrikatu nahi ditut, bakoitza bere kode, estilo eta nortasunarekin. Gure izaeraren erakusleho paregabeak, esperientziak ikusi edo bizitzeko iturri amaigabeak. Juan Tallónek *Mientras haya bares* liburuan aipatzen duen modura, barra baten inguruan biltzeko gaitasuna galtzen duen herri bat hildako herri bat da.

Smoke pelikulan, Harvey Keitelek Brooklyngo bere estanko paretik argazki bat ateratzen dio aurreko kale kantoiari. Egunero ordu berean; 12 urtetan 4.000 argazki. Lagun idazleak denak berdinak direla esan dio, bilduma ikustean; polikiago begiratzeko esan dio Keitelek: goiz eguzkitsuak

daudela, goiz ilunak, udarako argitasuna, udazkenekoa; astegunak, asteburuak; batzuetan jendea galtza motzekin, besteetan berokiarekin; pertsona desberdinak berdin bihurtzen direla, eta berdinak desagertu.

Antzera sentitzen naiz tabernako barra barrutik, panoramaren ñabardurak sufritu eta gozaten. Hiru eratako argazkiak bereiziko nituzke. Gutxi batzuetan, harmonia moduko bat suma daiteke; sarrerako mahaian aspaldiko bezero leialak leihotik begira, patxadan, bizitza pasatzen ikusten; ondoan, bi lagun xakean jokutzen, eta hirugarren bat TMEOarekin barrez; mapari begira, gertuago, lagun talde bat bizipenak kontatzen, ametsetan; arbelean, I. Ulaciaren poema, semaforoa gorrian gurutzatu zuen mojarera; txokoan, maitasun hitzetan itotzen bikote bat, mundutik at; iskanbila handirik ez da, baina ez lasaiegi.

Bigarren argazkian, giroa antzekoa da, baina atmosferan zerbait usaintzen da; astroak

**BARRA BATEN
INGURUAN BILTZEKO
GAITASUNA GALTZEN
DUEN HERRI BAT
HILDAKO HERRI BAT DA**

lerrokatuta daude, eta badakizu une batetik bestera eztanda egingo duela inprobisatutako performance batean.

Hirugarren argazkia ustekabean sortzen da, horma zahar bateko zirrikitutik lore koloretsu bat hazten den moduan. 50 urte inguruko emakume bat sartu da. La loca Juana garagardoa eskatu, eta, periodikoa irakurri eta marrazten duen bitartean, negar malko potoloak isuri zaizkio. Bigarren bat eskatu du. Ea dena ondo doan galdetu diot. Erantzun dit bere katua, Juana, 16 urterekin aste horretan bertan hil dela. Hirugarren bat edan ondoren, autobusa hartzera doa presaka. Kuriositatez, periodikoa hartu eta eskela txiki bat ikusi dut, katu baten marrazkiarekin: “Juana, maite zaitut”, dio.

Arrosak ere baditu bere arantzak; frustrazioa askotan gailentzen da, rockak garai hobeak bizi izan ditu. Epeltasun pixka bat falta zaio gastronomiaren diktadurapean ezarri nahi duten ostalaritzari. Baina badago esperantzarako arrazoirik. Etxean isiltasun handiegia dago, edo iskanbila gehiegi, eta drama gehienak umorearekin bustiz hobeto gaintzen dira. Garagardoak tabernan etxean baino zapore hobe duela diote. Jaitsi gaitezen, hor daude eta milaka txoko istorio onak bizitzeko irrikan. ■

Talentua behar da



JUAN LUIS ROMATET

Denborarekin gero eta musika estilo gehiago entzuten ditut. Ez dakit urteek jakintsuagoa egin nauten –seguru ezetz–, baina aurreiritzi batzuk gainetik kendu dizkidate, behintzat. R.E.M., The Smiths edo Sonic Youth entzuten zituen gaztetxo hura ez zen joaten flamenkoko kontzertu bat ikustera, ezta behartuta ere. 40 urteak aspaldi igaro dituen honek, ordea, flamenkoko, jazzeko edo countryko kontzertu batean rock and rolleko batean bezain ondo pasatzen du. Beno, ez gaitezen pasa, agian ez hain ondo.

Badaude, baina, borondate guztia jarrita ere jasan ezin ditudan estiloak. Sarrera doan emanda ere nekez aurkituko naute OTren estiloko gala batean, talde heavyen ikuskizun pirotekniko batean edota Bon Joviren kontzertu batean. Beste hark zioen bezala, nahiago tximu bihurtu saio horietako batera joan baino.

Aurrez aipatutakoak bezalako proposamenak ezin ditut jasan, baina, nire fobia musikalaren podiumeko lehen lekuan tributo taldeak daude. Bai, besteen talentuaz, famaz eta, nola ez, abestiez baliatzen diren “talde” horiek.

Nostalgiarekin lotzen dudan fenomeno da hau. Gaztaroan –eta baita orain ere– talde bat gustatu zait, eta originala ikusi ezin dudanez, haren klonarekin konformatuko naiz, Seattlekoa izan beharrean, Vicalvarokoa bada ere. Imitatu beharreko abeslariak kantatzeko modu berezi bat badu, klonak imitatu egingo du; gitarra jotzailea bozgorailuetara igotzen bada, klonak gauza bera egingo du. Eta berdin taldeko beste partaide guztiakin. Modelo originalaren antzera jantziko dira, orrazkera berberak izango dituzte, berdin mugituko dira agertokian, keinu berberak egingo dituzte, eta, noski, abestiak kalko hutsak izango dira. Beste hark esango du: “Beno, behintzat, ondo jotzen dute”. Horixe falta da! Materia prima bestearena izan eta, gainera, emaitza kaskarra izatea.

Ez nago bertsioak egitearen aurka, betiere sormenak bere lekua badu. Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* berriz entzun gabe lasai hil naiteke. Orain urte batzuk, baina, Pettik egindako bertsioa entzun nuen, eta barrenak mugitu zizkidan, Leteren abestia bere egin zuelako. Eta, klaro, Petti artista hutsa delako.

Orain gutxi gauza bera gertatu zitzaidan Mobydick getxoztarrak Itziarren eman zuen kontzertuan. Gau polita izan zen: bere abestiak jo zituen, baita bertsioren bat edo beste ere; Ruper Ordorikaren eta Pink Floyden bana, hurrenez hurren. Halako batean Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* abestiaren bertsio monumental bat jo zuen; bizkaitarrak jorratzen duen folk-rock ilunera eraman zuen. Sormenak eta talentuak bat egin zuten abesti hilezkor baten bertsio txundigarrian. Eta, beste hark zioena omenduz, hemengo honi hitz bakarra atera zitzaion: “Buatxaball!”. ■■■

**EZ NAGO BERTSIOAK
EGITEAREN AURKA,
BETIERE SORMENAK
BERE LEKUA BADU**



ARDANTZABIDE

ATSEDENA

Air memory koltxoia + ohe artikulatua





90x190

*neurri aukera gehiago ere badago

541€-tik
hasita



Txomin Agirre, 4 · 20750 Zumaia · 943-86 25 32
ardantzabide@euskalnet.net · www.ardantzabide.com ·  

ZATOK ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865 100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.





59€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

ORBEGOZO MI 2015
Mikroondasa




BALEIKE
%5
BAZKIDEA

189€

LG 28TK410
Led Telebista

**ORDAINDU
12 HILABETETAN**
Interesik gabe



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

449€

3 erretilu

A++

BALAY 3VS572IP
Ontzi garbigailua



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

1000rpm

6kg

249€

TEKA TKX3 1060
Garbigailua



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

569€

INOX

8kg

1400rpm

512,10€
%10 itzuli
ondoren

AEG L7FEE842S
Garbigailua



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

449€

8kg

1400rpm

404,10€
%10 itzuli
ondoren

AEG L6FBG844
Garbigailua



TIEN 21

www.endañoetaZumaia.com